

Gaikako unitateen laburpena

Berrikuntza
Lurraldea eta Natura
Barne Kohesioa
Kultura eta Aisia

2008ko Urria

BERRIKUNTZA

1.-Irungo Udalaren lidergoa eta konpromisoa berrikuntzat hartu daitekeen guztiaren aurrean, era globalean ulertuta, eta gai horietan espezialduta dauden erakundeekin, lankidetzan.

1.1.- “Bidasoa bizirik” bultzatzea berrikuntzarako agentzia gisa, ez enpresei begira soilik, baizik eta berrikuntzaren kulturarako dinamizatzaile.

- eragileak prestatuz.
- berrikuntza–talde bat sortuz gizarte esparruan.
- berritzaileak identifikatuz.
- aukera berriak antzemango dituen radar bat sortuz.

1.2.- Irun Digitala proiektua,

- hiritarrarentzako abantaila-sortzaile gisa, zuzenean eta zeharka, udalaren elkarteen bidez.

- hiritarren alfabetatzaile gisa, eta beste hainbat esparrurekiko sinergiak bilatuz.

- berrikuntzaren tresna gisa, dagoeneko horren inguruan dauden ekimenak erraztuz eta garatuz.

- “Irun digitala” marka gisa.

1.3. - Gizarteak eta erakundeek berritzaileak aintzat hartuz.

2.- Hiriaren nortasun bikoitza bultzatzea eta mantentzea, alderdi hauek kontuan hartuz:

- Merkataritza hiria, nortasunaren adierazgarri, hauek bultzatuz,
 - merkataritzaren espezializazioa eta diferentziazioa
 - bezeroak erakartzea
 - eta ingurumena aprobetxatzea
- Zerbitzu hiria. Enpresak garatu ahal izateko eszenarioa emanez:
 - aholkularitzak, ingeniariak,
 - software-enpresak

- logistika,
- komunikazioaren sektorearekin eta edukiei lotutako sektoreak,

Testuinguru honetan, hezkuntzaren munduan egokia da frantsesa-euskara-gaztelania irakastea, Irungo kokapen geografikoa aprobetxatuz.

3.- Goi mailako hezkuntza eskaintza garatzea, dagoeneko hasiera eman zaion ibilbide bati jarraiki.

- Berritzearen eta bultzatzearen inguruko sektoreekin lotutako unibertsitate-eskaintza zabaltzea eta martxan jartzea. Graduondoko ikastaroak, doktoregoak, udako ikastaroak.
- Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa enpresarekin lotzea, hauek erabiliz: praktikak, diru-laguntzak, enpresekiko harreman estuagoak, enpresen prestakuntza-diagnostikoarekin zerikusia duten alderdi guztiekin ahalegin berezia eginez, eta Eskolaren eta enpresa txikien artean egiten diren proiektu zehatzak indartuz.

Alde horretatik, interesgarria da Donostia aukeratzat hartzea.

4.- Enpresen ekintzaitzan ardaztua dagoen oinarri teknologikoko Polo Teknologiko bat garatzea, zeinak berrikuntzazko jarduerak bere gain hartuko baititu.

Polo horretarako trakzio-nukleoa ez dela garatu jakinki, hona hemen sortu diren hainbat ideia:

- Bidasoa Eskualdeko Ospitalea handitzea eta horrek ekarriko lituzkeen lankidetzeta eta ikerkuntza hainbat sektoreren inguruan.
- Plasma Zentro Nazionala bultzatzea.

Hori guztia hiri gazte bat lortzeko asmoarekin, Polo teknologiko horren babesean, zeina profesional berrientzako toki eskuragarria eta bizitzeko egokia izango baita.

5.- Kultura, aisi eta turismo hiria

Eskualdeko politika turistikoaren marko globalean, hauek garatu beharko lituzke Irunek: (hainbat ideia)

- Hiriko zirkuitoak bukatzea.
- Garatzeko aukera duten hainbat gune zehatzen tratamendu espezifikoak: Aiako Harria, Olaberria eta Osinbiribil.
- Kultura eta aisia aberastasuna aprobetxatzea
- Kirol espezifikoak, baliabide gisa (piraguismoa).
- Merkataritza eta negozioa, ekonomiaren eta turismoaren garapenaren eragile gisa
- Eskualdea ordezkatzeko duten ikonoak garatzea, hala nola Ficoba, Oiasso Museoa, eta haien bidez Irun kokatzea.

LURRALDEA ETA NATURA

LURZORUA

Zenbateraino har ditzakegu lurzoru berriak etxebizitzari eta jarduera-ekonomikoei dagozkien premiei erantzuteko?

Etxebizitza

Jaso den inpresioa hau da: martxan dauden etxebizitzekin eta hiriko hainbat gunetan dauden hutsuneekin, esan daiteke beharrak estaliak daudela, lurzorua erabiltzeko behar gehiago ez daudela. Etxebizitza-kopuruari dagokionez, 4.500 dira onetsi direnak eta kudaetzeko fasean daudenak, taldean aipatu zenaren arabera. Horri hainbat dinamikaren emaitza gisa lor litekeena ere gehitu beharko litzaioke.

Jarduera ekonomikorako lurra

Lantalde honetan sortu den beste kontu bat da lurzoru gehiago behar dela lanpostu berriak sortzen laguntzeko, are gehiago belaunaldi berriek Irunen bizitzen eta lan egiten jarrai dazaten nahi badugu, horrek Irun hiri oso bat izaten ahalbidetuko du.

- Hau da, Irunek lurzoru gehiago behar du jarduera ekonomikoak bultzatzeko.
- Bestalde, aipatu da berrikuntza taldeak ekar ditzakeen jarduera motak bultzatzea gogokoa bada, ez direla ahaztu behar enpresa-jarduera tradizionalak, zeinak oso garrantzitsuak baitira hiriaren garapen ekonomikoan.
- Gainera, lurzorua behar da nahiz eta jarduera berriak ez izan, jarduera batzuk birkokatu ahal izateko, hiriaren barrenean daudelako. Hirurogeiko hamarkadan sortu diren jardueretarako gunek dira, baina gaur egun ez dira gogokoak; hala ere, gustatu ala ez, beharrezkoak dira.

Dagoeneko hartuta dagoen lurzoruari dagokionez.

- Balio erantsi handiko jarduerekin maximizatzea enplegu/erabilitako lurzoru ratioa.
- Garatuta dauden gunetan metro-kopurua gehitzeko zein aukera dauden aztertzeko adostasuna dago.

Hartuta ez dagoen lurzoruari dagokionez.

- OKUPATZEKO / HEDATZEKO GUNE BERRIAK, aukera batzuk daude.
 - Urdanibia-Zubieta.
 - Tren-gunea.
 - Olaberria Katea.
 - Araso ingurua
 - Eta beste toki gehiago.

Adierazi behar da horiek guztiek badituztela ingurumenarekin lotutako hainbat arazo.

- Aintzat hartu da “etorkizunerako erreserbak gorde behar ditugu” espresioa, alegia ezin dugula dena hartu.
- Olaberria Ventas guneari dagokionez, askok uste dute hau izango litzatekeela azkena hartzeko, betiere espazio horrekiko begirunezko eta baloratzeko ikuspuntu batez. Hau da Jarduera Ekonomikoen Erreserba bat, betiere izan lezakeen zentzurik egokienean ulertuta.

Tren-gunea berrantolatzea.

Hiriaren etorkizuneko puntu garrantzitsuena balitz bezala tratatu zen gai hau. Ez bakarrik etxebizitza berriaren ikuspuntutik, baizik eta “Irungo erdigune berria” balitz bezala (unibertsitatearen, hirugarren mailako aktibitatearen eta jarduera ekonomiko berrien garapena, Bartzelonako 22@ izenekoa).

Hiriarentzako aukera ederra ikuspuntu guztietatik hartuta, eta hiri dinamikoa eta etorkizuneko ideia indartu ahal du.

Hala ere, espreski adierazi da lurzoru hori oraindik ez dela eskuratu hiriarentzat, nahiz eta dirudien hori horrela izango dela eta hori garbi ikusiko dela oso epe motzean.

AZPIEGITURA MUGATZAILEAK

- Irunen garapenerari begira alda al daiteke azpiegitura-mugatzaileen (trenbidea, aireportua eta abar) kokalekua, eta aktiboki jardun al daiteke horren alde aldaketa lortzearren?

Udalak honako proiektuetan izan dezake eragina (eragin handienetik txikienera ordenatuta):

1. Hiria inguratzen duten bideak zabaltzea.
- 2.- Hiri-gunea tren gunean antolatzea.
- 3.- AHT-ren trazatua.
- 4.- Aireportua.

MUGIKORTASUNA

Nolako neurriak hartu beharko lirateke egungo eta etorkizuneko hiriko trafikoaren eta oro har mugikortasunaren arazoa konpontzeko?

Ondorio gisa eta irizpide hau kontuan hartuta, landu beharreko proiektuak hauek lirateke:

1. - Irungo autobus-garraio publikoa (maiztasuna eta prezioa).
 - Eremua garraio publikoko sare baten bidez konektatzea (metro bat bezala).
 - Kanpoaldeko joan-etorrietarako intermodalitate egoki-egokia.
- 2.- Bideak banantzea, garraio-erabilera desberdinen arabera. Adibide batzuk
 - Bide batzuei erabilera berezia eman. Hona adibide bat: Colon ibilbidea garraio publikorako eta aparkalekuetara sartzeko soilik.
 - Hiriko gunek batzuk oinezkoentzat bakarrik erabiltzea.

- 3.- Disuasio-aparkalekuak hiriaren hainbat gunetan, hiriaren inguruan eta erdialdearekin lotuta.
- 4.- Zirkulazio-zerga igotzea erabileraren arabera, autoa erabiltzeko asmoa murrizte aldera.
- 5.- Kultura hiritarra garatzea, hezkuntzaren bidez, garraioa ebitatze aldera ibilbide motzak egitean
- 6.- Bizikleta bultzatzea, bidegorri-sare bat eginda.
- 7.- Lur azpiko aparkalekuak, prezio arinez.
- 8.- Hego saihesbidea
- 9.- Egungo bide-egitura sarea jostea, leku batzuk beste batzuekin elkarlotuz.
- 10.- Intermodalitatea bultzatzea (trena eta kamioia)

Edonola ere, garrantzitsua da elkarlanean planifikatzea; adibidez, Garraio Patzuergo bakar baten bidez planifikatzea.

IRUN, ERDIGUNE

Zein puntutaraino aprobetxatu nahi du Irunek bere inguan duen kokapena, alegia erdian kokatua egotearen berezitasuna?

Edo, beste modu batez esanda: Zein izango litzateke Irunek eduki beharko lukeen ikuspen-esparrua, inguruan dagoena kontuan hartuz eta, jakina, betiere inguruko udalerietako autonomia eta interesak errespetatuz? Hausnarketa honen azpian hau dago: arazoei talde-ikuspegi batez begiratzeko beharra; izan ere, Irungo arazoak ez dira soilik konpontzen Udalak har ditzakeen erabakien markoan.

Hausnarketak ondorio hauek ekarri zituen:

- Irunek naturaltasunez erabili behar du bere kokagune naturalak eskaintzen dion erdialdean egotearen berezitasuna.

- Erdialdean egotearen berezitasun horrek, ezinbestez, onerako zein txarrerako ekarriko du Irunek egingo duen erakartze bat.

- Irun erdigune den ingurumen naturalaz hitz egiten denean, taldeak Donibane Lohizune, Baztan, Hendaia eta Hondarribia dauzka gogoan.

- Honek ahalegin berezi bat eta gauzak ongi egiteko ardura dakar.

- Lehen adierazitako gunearen erdialdean egote horrek ez du esan nahi Baionaren inguruko beste poloarekin (BAB) ez dela egongo laguntzeko eta elkar osatzeko harreman bat.

- Pasaiako portua garrantzitsua da Irunen etorkizunerako, eta horren ondorioz, dagozkion batzordeetan Udalaren presentzia eta esku-hartzea eskatuko luke horrek.

BARNE KOHESIOA

1.- Balio, eskubide eta betebeharrak dituen gizarte plurala.

1.1.- Hobeto sentiarazten gaituzten eskubideen, betebeharren eta gutxieneko baloreen zerrenda positibo bat egitea, gizartearen parte-hartze zabalenarekin eginda; horretarako, Udala transmisio-eragile eta guztiaren betearazle izango da.

1.2.- Hiritarren artean, kulturen arteko ezinbesteko nahasketa ona dela zabaltzea, sentsibilizazio programa baten bidez, zein datu onuragarri dakartzkion immigrazioak Iruni era zehatzean jakinaraziz.

1.3.- Etorकिन harrera hobetzea, isolamendu prozesua txikiagotuz; beste kulturetako pertsonak eta familiak Irungo ekitaldietan eta elkarte esanguratsuetan sartzea litzateke posibilitate bat.

1.4.- Bitartekotza sozialerako programak bultzatzea hiritarren arteko gatazkak ebazteko, baloreen artean gerta litezkeen gatazkak konpondu eta aholkua emango duen Hiritarren Bizikidetzako Behatoki bat sortuz.

1.5.- Plangintzak eta laguntzak koordinatzea, kolektiboan bertan lan egiten ari diren erakundeen bidez, auzoko elkarten inguruan, Zentro Zibikoak desberdintasunak konpentsatzeko topagunea lirateke.

1.6.- Esku-hartze sozialeko erroka berrien aurrean, ezagutza eta berrikuntzaren kudeaketa bere gain hartzen duen erakundea.

1.7.- Elkartasunaren eta gizarteratzearen aldeko praktikak bultzatzea, Irun hiriaren gizarte-ekintzaren eredu gisa.

2.- Hiritar guztiei, bakoitzaren premien arabera, baliabide eta gizarte zerbitzu guztietarako aukera ematen die, betiere bazterkeria saihestearren, laguntza gehien behar duten egoerak bereziki kontuan hartuta.

2.1.- Ezintasunen bat duten pertsonentzako eta bazterkeria sozialaren arriskua duten pertsonentzako tresnak sortzea eta garatzea, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko eta lan munduan zein gizartean sartzea errazteko, dagoeneko dauden mekanismoei eta tresnei berez daukaten balioa emanaz. Horrez gain,

- Plan bat gauzatuko da behar handiena duten horiengana iristeko eta beraiei ere aukera emateko.
- Auzoak eta erabiltzaileak fisikoki hurbiltzea gizarte-zerbitzuetara, arretarako eta informaziorako.
- Ikasle etorkinen banaketa era orekatuan hobetzea ikastetxeetan.
- Erantzuna emateko epea hobetzea gizarte-zerbitzuetako hitzorduetan, batez ere presazko kasuei dagokienez.

2.2.- Boluntariora eta asoziazionismoa bultzatzea hiri mailan.

2.3.- Ikastetxearen eta gizarte-zerbitzuen arteko esku-hartzeen koordinazioa hobetzea.

2.4.- Unibertsaltasun iragazkia eta gizarte izaerako irizpideak ezartzea udalak egingo dituen jarduera eta deialdi guztietan.

3.- Aukera-berdintasuna sustatzea.

3.1.- Hiritarren ardura bultzatzea gizarte-ehunean eta elkarteetan.

3.2.- Etxebizitza eskuratzen laguntzeko proposamenak:

- BO Etxebizitzak eskuratzeko irizpideak hobetzea.
- Obra berrietan etxebizitza txikiagoak eraikitzeko tramiteak bizkortzea.

- Tramiteak bizkortzea bina etxebizitza-apartamentu egiteko azalera handiko etxebizitza zaharretan.
- Etxebizitza Tasatuen kopurua gehitzea.
- Alokairuko etxebizitza publikoa.

3.3.- Eskola-errefortzu eta aisialdiko akonpainamendu programak haurrentzako.

3.4.- Aukera-berdintasunaren inguruan, praktika hori burutzen duten elkarten kudeaketa aintzat hartzea eta desberdintasun positibotzat hartzea.

4.- Segurtasuna hirian.

4.1.- Segurtasunari begirako hiri-diseinua garatzea.

4.2.- Koordinazio handiagoa polizia taldeen artean, eta, bereziki, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren artean.

4.3.- Koordinazio sistematikoa: Kaleko hezitzaileen, Udaltzaingoaren, Gizarte Zerbitzuen, ikastetxeen eta Auzitegiaren artean, prebentziozko izaera indartuz eta auzoak kontuan hartuz.

4.4.- Segurtasunari dagokionez, guztiok daukagun arduran eragina izatea; adibidez, bide-heziketan (oinezkoaren segurtasuna).

4.5.- Gizarteratzen laguntzeko programak, presondegitik pasa diren pertsonentzako.



KULTURA ETA AISIA

1.- Pertsonak elkartzeko tokiak sortzea; hala nola zentro zibikoak, auditorioa, liburutegia eta bestelako azpiegiturak, toki horiek sarean lan egin dezaten ahalginduz eta konpartimentu estankokoak saihestuz.

- Erdigune gisa: San Juan-Etxeandia plaza, benetako auditorioa eta liburutegi nagusia bertan daudela.
- Hurbil: Zentro Zibikoak.
- Distantziak txikiagotzeko irizpideak:
 - o Adinaren distantzia txikiagotu.
 - o Eten digitala.
- FICOBA eta beste toki batzuk hobeto aprobetxatzea, lokal gehiago erabiltzeko dagoen eskaera ikusita.
- Aire zabaleko toki publikoak aprobetxatzea, egokituz eta bultzatuz, bizitza kalean mantentzeko asmoarekin.

2.- Kokapen geografikoa aprobetxatzea kultura eta aisialdia gaitan beste lurraldeekin lan egiteko, hiriaren inguruko espazioei (Olaberria, Osinbiribil) kulturarako eta turismorako garrantzia emanaz.

- Mugaz gaineko ingurua ordezkatzeko ikono berriak (toki hauetarainokoa litzateke: Errenteriaraino, Communauté de Comunes Sud Pays Basqueraino, Angeluraino eta Baztaneraino), Irun izan liteke hiriburua, FICOBA adibide gisa.
- Kultura-proiektu komunen buru izatea.
- Etorkizunean gauzatuko direnak aprobetxatu, hala nola Mentxu Gal Museoa, Uri Proiketua, Museo Erromatarra... Irungo nortasun kulturala lantzeko plataforma bat sortzeko, espezialistentzat eta unibertsitariarentzat interes berezikoa den kultura-ondaretik hasita.
- Bidasoako zirkuitoaren oinezkoen eta bidegorrien ibilbidea osatzea bi ertzeetan.

- Irungo barne-zirkuitoa osatzea.
- Badiaren ibilbidea osatzea.
- Olaberriako ibilbide kulturala-artistikoa (Altamira: meategi erromatarrak)
- Gaur egungo xendak ezagutaraztea.
- Ekintza kulturalak gauzatzeko erabil daitezkeen tokiak aprobetxatzea.
- Frantses hizkuntza ikastera bultzatzea eta sustatzea, hiriaren harremanetarako eta probetxu handiagoa lortzeko.

3.- Nerabeentzako eta gazteentzako jarduera kulturakak eta aisialdikoak bultzatzea, jarduera horien antolamendurako haien partaidetzarekin kontatuz, udalaren eta gazteriaren artean harreman-mota berri bat sortuz. Jende gazteari begira bereziki, kirol eta aisialdirako ekipamendu berriak sortzea.

- Esperientzia pilotu bat sortzea, bi zentzu hauek kontuan hartuz:
 - o Hainbat lokalen kogestioa, gazteentzako jarduerak burutzeko.
 - o Hainbaten artean partekatzen diren jarduerak sortzea, gaur egun dauden lokalak abiapuntu gisa.
Auzo-elkarteei uztartuz.
- Aire zabaleko igerilekua.
- Ikastetxeetako kirol- eta aisia-espazioak aprobetxatzea.

4.- Hiritarren kultur-ohitura sustatzea. Kultura ekitaldi desberdinak eta espezifikoak burutzea. Kultura ekitaldi bat Irun hiriarekin identifikatzea izango litzateke nagusiki. Kultura sortzea eta ekoiztea enpresen eta elkarten bidez.

- Egiten dena hobeto hedatzea.
- Saioetan ematen zaigun informazioa osatzea, interpretatzeko oinarrizko jarraibideak emanaz.
- Eskaintza zehatzak, adibidez: lehenengo sarrera, libre.

- Hiritar sortzaileak sustatzea, ikuspegi kultural batetik.
- Kultura elkarten eta enpresen presentzia zein harreman handiagoa, eta hori guztia aintzat hartzea.
- Sormen eta kultura-ekoizpen enpresak erakartzea.
- Ekintza kultural bereziak aurrera eramatea, adibide gisa:
 - Bidasoako Nazioarteko Arkeologi Zinemaldia
 - Gazte Antzerkiaren Erakustaldia
 - Bidasoa Kirol Kluba
 - Real Unión.
 - Kontserbatorioaren inguruko ekitaldi kulturala
 - Ametsa Abesbatza

5.- Euskarazko kultur eskaintza handitzea eta hobetzea.

- Euskararen udal ordenantzari buruzko hausnarketa.
- Harremanak sustatzea Bortziriekin.